

2011-02-23an EGINDAKO OHIKO OSOKO  
BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL  
PLENO DE LA CORPORACIÓN.  
Día 23-02-2011

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Pedro Lasagabaster Armendáriz

#### Zinegotziak

Dorleta Leceta Uribetxebarria  
Ander Aguiriano Errasti  
Begoña Eraña Lazkano  
Karmelo Leceta Abasolo  
Maidier Otamendi Tolosa  
Juan Luis Merino Sanabria  
Ignacio Pierrugues Barberán.  
Unai Salaberria Mugica

#### Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamaikako otsailaren hogeita hiruan, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Pedro Lasagabaster Armendariz alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Barandiaran eta Urrutia jaunak.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día veintitrés de enero de 2011, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Pedro Lasagabaster Armendariz, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten los Srs. Barandiarán y Urrutia.



## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2011ko urtarrilaren 26an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK ETA ERABAKIAK**

### **2.1.- ERABAKIAK**

2011ko otsailaren 17ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz ondorengo kreditu aldaketa espedienteen berri eman da:

- **ALKATEAREN ERABAKIA**

**ZENBAKIA:** B11/41

**DATA:** 2011/01/28

**GAIA:** KREDITU ALDAKETA:KREDITU TRANSFERENTZIAK ESPEDIENTEA ONARTZEA

**ESPEDIENTEA:** 2011ko aurrekontuari egindako 1 kreditu aldaketa.(2011 KKRT0001)  
**INTERESDUNA:**

*Gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea aztertu dugu, hain zuzen, 1 zenbakiarekin identifikatua eta Udal honen aurtengo aurrekontuari eragiten diona.*

*Idazkari-Kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola ikusi dugu eta, zehazkiago, Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 29. artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola*

*Arestian aipatutako Foru Arauak 29. artikulua 3 eta 4. apartatuetan ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, hau*

**EBATZI DUT"**

**Lehenik.-** *Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, Udal honen aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:*

***Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (bajak)***



<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gutxipena</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
1	<i>Pertsonalaren gastuak</i>	1.424.961,38	9.630,00	1.415.331,38
2	<i>Ondare arruntak eta zerbitzuak erostea</i>	2.469.395,93		2.469.395,93
3	<i>Gastu finantzarioak</i>	41.192,73		41.192,73
4	<i>Transferentzia arruntak</i>	555.048,19		555.048,19
6	<i>Inbertsio errealak</i>	1.304.151,21		1.304.151,21
7	<i>Kapital transferentziak</i>	155.304,29		155.304,29
8	<i>Aktibo finantzarioak</i>			
9	<i>Pasibo finantzarioak</i>	241.613,19		241.613,19
<b>GUZTIRA ...</b>		<b>6.191.666,92</b>	<b>9.630,00</b>	<b>6.182.036,92</b>

**Gehitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (altak)**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gehikuntza</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
1	<i>Pertsonalaren gastuak</i>	1.415.331,38		1.415.331,38
2	<i>Ondare arruntak eta zerbitzuak erostea</i>	2.469.395,93	9.630,00	2.479.025,93
3	<i>Gastu finantzarioak</i>	41.192,73		41.192,73
4	<i>Transferentzia arruntak</i>	555.048,19		555.048,19
6	<i>Inbertsio errealak</i>	1.304.151,21		1.304.151,21
7	<i>Kapital transferentziak</i>	155.304,29		155.304,29
8	<i>Aktibo finantzarioak</i>			
9	<i>Pasibo finantzarioak</i>	241.613,19		241.613,19
<b>GUZTIRA ...</b>		<b>6.182.036,92</b>	<b>9.630,00</b>	<b>6.191.666,92</b>

**Bigarren.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoan Kontuhartzailatza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea, Udalbatzarrari egiten duen lehen bilkuran egintza honen berri ematea eragotzi gabe.



- **ALKATEAREN ERABAKIA**

**ZENBAKIA:** B11/00055

**DATA:** 2011/02/04

**GAIA:** KREDITU HABILITAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA

**ESPEDIENTEA:** 2011ko aurrekontuari egindako 2. kreditu aldaketa

**INTERESDUNA:**

*Idazkari-kontuhartzaileak 2011ko aurrekontuari egindako 2. kreditu aldaketaren onarpen espedientea idatzi du (Kreditu Habilitazio motakoa).*

**Espedientea osatzen duten dokumentuak ikusi eta egokiak iritzita, Alkate naizen honek honako hau**

**ERABAKI DUT**

*1.-. Kreditu-Habilitazio espedientea onartzea (2011ko aurrekontuari egindako 2. kreditu aldaketa), sarrera finalisten diru-bilketaren ondorioz sortutakoa. Guztira, 1.581,78 €.*

## **2.2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK**

2.2.3 Zaharren egoitzarako diru-iturriak lortzeko hasitako kanpainaren aurka Ezker Batuko zinegotziak egindako adierazpenei Eskoriatzako Udal Gobernuaren erantzuna.

Alkateak honako testu hau irakurri du:

. Testuan agertzen diren irainak ez ditugu baloratuko. Ez du pena merezi. Testuak berak berez deskalifikatzen du idatzi dituen.

. Patronatuko kideen aurka egindako akusazioak faltsuak dira. Gezurra da egoitzako zuzendari ohiak egindakoen erantzukizuna patronatuarena ere badela esatea. Argi eta garbi esaten du hori epaileak emandako epai irmoak. Ezker Batuko zinegotziak epaia ezagutu beharko luke, baina susmoa daukagu irakurri ere ez duela egin.

. Gobernu talde honek Eskoriatzako zaharren egoitza zabalik mantentzeko apostu garbia egin nahi du. Patronatuak egin digun eskariari erantzungo diogu eta zorra ordaintzen lagunduko dugu. Gainera, gure ustez, legezkoa eta egokia da diru eskarian beste erakunde batzuk eta herritarrak inplikatzeko. Horregatik hain zuzen ere, dirua batzeko hasi berria den kanpainaren alde gaude (eta hemen ordezkaturata zaudeten alderdi politikoei eta eskoriatzarrak zaretan heinean baita zinegotzietan ere, gonbidapena luzatzen dizuegu kanpainarako diru-ekarpenak egiteko).

. Herritarren artean uste okerrak zabaltzen ibiltzea ez da zuzena. Zine zaharra birgaitu eta erabilera anitzeko aretoa egiteko erreserbatu den dirua ezin da egoitzako zorrak ordaintzeko erabili. Diru hori inbertsio publikotarako dirua da eta egoitza, momentuz



behintzat, pribatua da. Legez ezin da diru hori laguntzetarako erabili, hori ilegala litzatek

#### 2.2.4.- “Atez ateko” zabor bilketa eta Usurbilgo ituna sinatzea.

Alkateak historikotzat jo duen erabakia hartu eta “atez ateko” zabor bilketaren alde agertu zen Mankomunitatea duela bi aste. Usurbilgo Itunarekin ere bat egin du, eta bat egite hori ere garapen jasangarriaren aldeko neurri historikotzat jo du Alkateak. Datorren martxoaren 7an aurreikusten da lehenengo aldiz hasia “atez ateko” zerbitzua mankomunitateko herri batean, Antzuolan, eta bertaratutako guztiak gonbidatu ditu hori dela-eta egingo diren ekitaldi guztietara.

### **3.- Gai zerrendan hainbat gai sartzea berrestea.**

Dagokien batzorde informatzaileen diktamenik ez dagoenez batzordeetan quorumik egon ez delako, Udalbatzarrak aho batez berretsi du ondorengo gaiak gai zerrendan sartzea

- *Eskoriatzako udalerriko irabazi asmorik gabeko kultur elkarteei eta taldeei 2011n egiteko ekintzetarako diru laguntzak emateko oinarriak hasiera batean onartzea.*
- *GI3310 errepidetik Gorosarri baserrietara doan erabilera publikoko bidearen zati baten mugaketa egiteko prozedura hasteko erabakia.*
- *Lankidetzeta hitzarmena sinatzea Leintz Eskola Kirolarekin.*

### **4.- Udal erregelamendu organikoko 26. artikulua (boto partikularrak eta zuzenketak) aldatzea.**

**Udal erregelamendu organikoko 26. artikulua aldatzeko Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamena guztiek ezagututa, Udalbatzarrak, Merino jaunaren aurkako botoarekin eta legezko gehiengo absolutuaren quoruma osatzen duten bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, honako hau ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- **Udal erregelamendu organikoko 26 artikulua aldaketa honela onartzea:**

A.- *Boto partikularra: batzorde informatzaileko kide batek diktamen bateko testu originala aldatzeko egindako proposamena, kidea diktamena emandako batzordean egon baldin bada. Proposamena idatziz aurkeztu beharko da diktamena onartu eta hurrengo 24 orduren barruan, eta diktamenarekin batera joango da batzordeak diktamena ematen duen hurrengo egunetik.*

B.-*Zuzenketa: diktamen edo proposamen baten testu originala aldatzeko proposamena. Diktamen bati egindako zuzenketa denean, zuzenketa-egilea zinegotzia izan beharko da, baina diktamena egin duen batzordeko kide ez, edo, kide izanik, diktamena egin zen batzordean parte hartu ez. Zuzenketak idatziz aurkeztu beharko dira, gutxienez osoko bilkura baino 48 ordu lehenago.*

*Alkateak emango ditu beharrezko aginduak egindako zuzenketak talde politikoen bozeramaleei helarazteko.*

*Zuzenketak eta boto partikularrak osokoak edo puntu zehatz bati egindakoak izan daitezke.*



*Osokoak izango dira diktamenaren edo proposamenaren egokitasunari, printzipioei edo izpirituari buruzkoak direnean eta diktamena edo proposamena itzultzea edo testu alternatibo osoa proposatzen dutenean.*

*Puntu zehatz bati egindako zuzenketak eta boto partikularrak honakoak izan daitezke: Kentzekoak. Aldatzekoak. Gehitzekoak.*

*Udalbatzarrean lehenik osoko boto partikularrak eta zuzenketak eztabaidatuko dira, hurrenkera horretan bozkatzuz, eta ez balira onartuko Udalbatzarrak boto partikular eta zuzenketa partzialak banan-banan eztabaidatuko ditu, eta ondoren bozkatu egingo dira. Azkenik, boto partikularrik edota zuzenketarik onartuko balitz, horiekin osatutako testua bozkatuko da.*

**Bigarrena: Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.**

**Hirugarrena:** Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki berririk hartu behar gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egingo ez balitz.

#### **5.- Eskoriatzako udalerriko irabazi asmorik gabeko kultur elkarteei eta taldeei 2011n egiteko ekintzetarako diru laguntzak emateko oinarriak hasiera batean onartzea.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek dute Kultura batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako udalerriko irabazi asmorik gabeko kultur elkarteei eta taldeei 2011n egiteko ekintzetarako diru laguntzak emateko oinarriak onartzea.

**Bigarrena.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri eta iradokizunak egin ditzan.**

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.-** Alkate jaunari ahalmena ematea oinarriak onartu ondoren bertan aratutako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

#### **6.- GI3310 ERREPIDETIK GOROSARRI BASERRIETARA DOAN ERABILERA PUBLIKOKO BIDEAREN ZATI BATEN MUGAKETA EGITEKO PROZEDURA HASTEKO ERABAKIA.**

GI 3310 errepidetik Gorosarri Behekoa baserrirako bideko mugaketa eta mugarriak jartzeko espedienteak egin ondoren, berriz ere ondorengo zati honetan mugaketa egiteko eta mugarriak jartzeko beharra ikusi da:

- Labetxe baserriko jabetzako lurzatiarekin muga egiten duen zatitik hormigoizko zatia hasten den lekura arte.

Espediente horrekin bidearen mugak zehatz finkatu eta mugak, mugakideak, perimetroa eta azalera adieraziz horien deskripzio zehatza jasotzeaz gain, bidearen usurpaziorik egon den edo ez ikusi ahal izango da.



Udal ondasunen mugatze-ahalaren bidez kotasunari buruz Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 82 b) artikuluan adierazitakoa kontuan hartu da.

Horrekin batera, toki entitateen mugatze-ahalmenari buruz Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduko 56. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoa ere kontuan izanik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.**- **GI 3310 bidetik Gorosarri baserrietara doan bidea, -zehazkiago, Labetxe baserriaren lurrekin eta hormigoizko zatiraino Gorosarri Behekoarekin mugakide egiten duen zatia-, mugatzeko espedienteari hasiera ematea, .**

**Bigarrena.**- Lur-neurketen ekitaldi publikoa egiteko interesatuei deitzea ondoren adieraziko den egun eta ordurako:

<b><i>Muga egiten duten lurren jabeen izen-abizenak</i></b>	<b><i>EGUNA</i></b>	<b><i>ORDUA</i></b>	<b><i>LEKUA</i></b>
Rosalía Gamboa Murgoitio-baserria Errota	9-05-2011	10:30	Gorosarri Behekoa baserria
Javier Bereciartua Gorosarri baserria Aguirre - Behekoa	9-05-2011	10:30	Gorosarri Behekoa baserria
José Luis Eraña-Labetxe baserria	9-05-2011	10:30	Gorosarri Behekoa baserria
Juan Jose Bengoa Altuna	9-05-2011	10:30	Gorosarri Behekoa baserria

**Hirugarrena.**- Ondoren adieraziko diren pertsonak Udalaren ordezkari izendatzea espedientearen instrukzioan eta lur-neurketa ekitaldian parte hartzeko:

- *Alkatea: Pedro Lasagabaster*
- *Zinegotziak: Unai Salaberria Múgica  
Carmelo Leceta Abásolo*
- *Udal Idazkaria: Edurne Iturbe Lascurain.*
- *Topografiako teknikaria: Juan Mari Arana Elezpuru*

**Laugarrena.**- Interesatuei jakinaraztea lur-neurketa ekitaldirako jarritako eguna baino hogeitun egun lehenagora arte beraien eskubideak babesteko eta frogatzeko dokumentuak aurkeztu ahal izango dituztela.

**7.- Intxaurtxueta 26, 1. ezk. helbideko udal etxebizitza errentatzeko espedienteari hasiera ematea.**

**Intxaurtxueta 26, 1. ezk. helbideko etxebizitza errentatzeko irekitako espedienteak kontuan izanik, Udalbatzarrak, Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamenaren**



**arabera eta legezko gehiengo absolutuaren quoruma osatzen duten bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, honako hau ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Intxaurtxueta 26, 1. ezk. helbideko etxebizitza zozketa bidez errentan ematea.

**Bigarrena.-** Errentamendua arautuko duen baldintza juridiko ekonomiko-administratiboen agiria onartzea, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin eta zortziz egunez iragarki oholean egon dadin agintzea.

**Hirugarrena.-** Baldintza administratiboen agiria jendurrean egoteko epean lehiaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko da. Hori horrela, baldintza agiriaren aurkako erreklamaziorik balego eta beharrezkoa izan, lehiaketa atzeratu egingo da.

### **8.- Aurreko urteetan onartutako eskubideei baja ematea.**

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Baja ematea aurreko ekitaldietan onartutako eskubide hauei:

<b>(*)KONTZEP/EPEAZ/ KIA</b>	<b>ZENBATEK OA (€)</b>	<b>ZERGADUNA</b>	<b>ZERGATIA</b>
001/200781-548/170	39,15	SAN VICENTE BENGEOA ANA M.	Kotxea Bergaran ordaindu du zerga hasieratik.
001/200881-535/145	39,15	SAN VICENTE BENGEOA ANA M.	Kotxea Bergaran ordaindu du zerga hasieratik.
001/200981-544/128	39,66	SAN VICENTE BENGEOA ANA M.	Kotxea Bergaran ordaindu du zerga hasieratik.
001/201001/132	130,80	ANDUAGA OYANGUREN M.JAIONE	2010eko salbuespena ere zegokion (minusbaliatasuna)

**Bigarrena.-** Zerrenda horretatik oker kobratutako ordainagiritako dirua itzultzea.

### **9.- San Pedro 5. ezk. eta 5. esk. helbidetako etxebizitzak desafektatzeko hasierako onarpena.**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari San Pedro 9ko 5. ezk. eta 5. esk. helbideetako etxebizitzak desafektatzeko eskatzea erabaki zuen Udalbatzarrak 2008ko irailaren 24an egindako bilkuran erabaki horren aurrekarietan jasotako arrazoiengatik.

**Eskaria eginda, 2009ko martxoaren 12ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Aginduz, baimena eman zitzaion Eskoriatzako Udalari etxebizitzak desafektatzeko 77/2008 Dekretuko 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.**

TJOLeko 81. artikuluan eta RBko 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez eta legezko gehiengo absolutuaren quorumarekin, honako hau ERABAKI DU:

1. San Pedro 9ko 5. ezk. eta 5. esk. helbidetako etxebizitzan KALIFIKAZIO JURIDIKOA ALDATZEA, jabari publikotik desafektatu eta ondare ondasun bezala kalifikatuz.





2. Espedientea HILABETEZ jendaurrean jartzea nahi duenak alegazioak egin ditzan, eta horretarako iragarkia jartzea iragarki oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

### **10.- Lankidetzaren hitzarmena sinatzea Leintz Eskola Kirolarekin.**

Zinegotzi guztiek izan dute diktamenaren eta hitzarmen proposamenaren kopia bat.

Idazkariak ohartarazi du beharrezkoa dela Leintz Eskola Kirola Kirol Erakundearen Erregistroan izena emanda dagoela eta zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea, hori guztiori testuari egin beharreko zenbait aldaketen kaltetan gabe.

Agiriano jaunak argitu du proposatutako diru laguntza 6.759 eurokoa dela.

Bozketan eginda, Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera eta Leintz Eskola Kirola Kirol Erakundearen Erregistroan izena emanda dagoela eta zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak beteta dituela aurrez egiaztatzearen kaltetan gabe, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabaki du:

**Lehenengoa.-** Aurrekarietan aipatutako gorabeherak egiaztatu ondoren, LEINTZ ESKOLA KIROLAREKIN hitzarmena sinatzea. Hitzarmen horretan eskola kirola programarekiko alde biek hartzen dituzten konpromisoak jasoko dira.

**Bigarrena.-** Udal honek hartutako konpromisoak betetzeko, LEINTZ ESKOLA KIROLARI 6.759 euroko diru laguntza ematea 0406.481.452.60.01 partidaren kargura. Kopuru horren % 60a berehala ordaintzea kontratua sinatu ondoren.

**Hirugarrena.-** Alkate jaunari eskumena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko Udalaren izenean eta hau ordezkatzuz.

### **11.- Galde-eskeak.**

11.1. Pierrugues jaunak eskatu du ondorengo parte hartzea aktan jasotzeko. Parte hartzen du bilkura baino lehen Ezker Batuaren prentsa oharra Udaletxeko webgunean argitaratzearen egokitasunari buruz emandako aurkako botoa justifikatzeko.

*IÑAKI PIERRUGUES ZINEGOTZI SOZIALISTAK PLENOAN ESANDAKOA EB-KO ZINEGOTZIAREN PRENTSA OHARRA DELA-ETA*

*Ez dut sartu gura, Juan Luis Merino bezala, deskalifikazio pertsonaletan. Nik ez dut politika horrela ulertzen. Niretzat gauza publikoari buruzko aukera edo iritzi politiko desberdinen arteko kritika politikoa existitzen da, eta ez ditut onartzen politika egiten dugunon arteko deskalifikazio pertsonalak, areago, ez naute ondo sentiarazten.*

*Juan Luis Merinoren portaera hori ez da berria, lehen ere egin du horrelakorik; 2007ko udal hauteskundeetarako kanpainan ere bere bideo publizitarioa nire eta nire alderdiaren aurka egiteko erabili zuen ia osorik, tarte oso txikia eskainiz bere hauteskunde programari. Eta orduan beste gobernu talde bat zegoen. Berak eta bere taldeak, eskuineko abertzaleek erabat abdukzituta, aktiboki parte hartu zuten gobernu talde horretan. Hau da, orduan ni ez nintzela egungo gobernu taldearen morroi leiala. Beste zerbait izango nintzen.*



*Baina hori ez da gehien arduratzen nauena. Gure herritarren artean ziurgabetasuna, nahasketa eta gizarte-alarma sortzen duten faltsukeriek eta gezurrek arduratzen naute batez ere. Ezin baita jendea engainatu Udalak ez zuela gura zaharren egoitzan inbertituz gura eta Zaldibar Antzokian inbertitu duela esanez. Zehaztu egin behar da Udalak ezin dituela inbertitu fundazio pribatu batean, -Mesedetako Amaren egoitza hori baita-, ez Zapateroren gobernuak martxan jarritako Toki Inbertsioetarako Estatuko Planaren Fondoetako diruak ez Santa Mariñe guneko hirigintza plusbalioak, legeek ez baitute uzten horrelakorik egiten. Hori horrela da, eta Juan Luis Merinok badaki hori. Edo, beharbada, aurreko agintaldian egin zen bezala, prebrikazioetan hasi gaitzen gura du?*

*Horretaz ari garela, esan behar da Estatuko fondo horiengatik eta hirigintza plusbalioengatik izan ez balitz, agintaldi honetan ezingo zatekeela inolako inbertsiorik egin Eskoriatzan. Izan ere, aurreko gobernu hirukoitzaren, -Merino partaide zela-, ilegalitateei, irregulartasunei eta zorrei esker Udal diru-kutxan Udalaren funtzionamenduko gastu arrunta ordaintzeko besterik ez zen egongo, eta hori ere ozta-ozta.*

*Gaia aldatuz, antza denez, ez zaio ganorazkoa iruditzen instituzioei, erakundeei eta Eskoriatzako herriari diru laguntzak eta dohaintzak eskatzea, -mota honetako egoitza pribatuetan ohiko jarduera izan denean-, baina, niri ganoragabeagoa iruditzen zait Juan Luis Merinok Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Departamentua zuzentzen duten Hamaikabiko bere lagunei ez gogoraraztea horiek bere garaian egoitzaren eraikina zaharberritzeko eta egoitza gaietan indarrean dagoen araudira homologatzeko dirua -300.000 euro inguru- jartzeko hartutako konpromisoa.*

*Gehiago esateko ere badago, baina honekin bukatuko dut. Nik ez dut ulertzen politika beste batzuen moduan, batzuk uste baitute beraiek gobernatu ezean eginahalak egin behar direla jendearentzako proposamen onuragarriek aurrera ez egiteko. Eta jendearengatik hurbilagoko udal politika egiteko mugak izan ditudan arren, Eskoriatzako herriaren onurako diren eta izango diren proposamenak egin ahal izan ditut. Egungo udal gobernu taldeak bere egin dituen proposamenak. Eta, neure aldetik, gobernu taldeak egindako proposamenak onartu ditut eskoriatzarren bizi kalitatea eta ongizatea hobetzeko zirelako, proposamen aurrerakoi eta ezkertiarak.*

*Berak horrela eskatuta, Pierrugues jaunak esandakoaren aurrean Otamendi andreak esandakoa jasotzen da: Ez duzula inor irainduko, ez zarela Merinoren jokoan sartuko esaten hasi zara eta uste dut irain joku horretan sartu zarela eta niri batere gustatzen ez zaidan tonua erabili duzu. Edukia beste kontu bat da, baina, forma bera da. Beste ezer baino lehen, begirunea. (Argitu du idatzi biei, bai EBrenari bai Iñaki Pierruguesenari, buruz duen iritzia dela hori).*

*Eraña andreak eskatu du aktan jasotzea ere bat datorrela idatzi biei buruz Otamendi andreak esandakoarekin.*

*Leceta jaunak eskatu du aktan jasotzea bera bat datorrela Otamendi andreak Pierrugues jaunaren idatziari buruz esandakoarekin.*

**Eta beste gairik ez dagoenez, 19:30etan amaitutzat ematen da bilkura. Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**



## **1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarla conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 26 de enero de 2011.

## **2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA Y RESOLUCIONES**

### **2.1.- RESOLUCIONES**

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 17 de febrero de 2011 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

De forma expresa da cuenta de las siguientes resoluciones relativas a expedientes de modificación de créditos:

- **RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA**

**Nº:** B11/41

**FECHA:** 28/01/2011

**ASUNTO:** MODIFICACIÓN DE CRÉDITO: APROBACIÓN DEL EXPEDIENTE DE TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS

**EXPEDIENTE:** Modificación de crédito nº 1 realizada al presupuesto de 2011 (2011 KKRT0001)

**INTERESADO:**

*Examinado el Expediente de Modificación de Créditos nº 1, mediante transferencia de créditos entre partidas presupuestarias de Gastos que afectan al Presupuesto de este año de este Ayuntamiento.*

*Según el informe de la Secretaria-Interventora, dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por el art. 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.*

*Haciendo uso de las competencias otorgadas en los apartados 3 y 4 del artículo 29 de la citada Norma Foral,*

### **RESUELVO**

***Primero.- Aprobar el expediente de modificación de créditos mediante transferencia de créditos entre las partidas presupuestarias de gastos que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al presupuesto de este Ayuntamiento y conforme al siguiente resumen por capítulos:***

***Gastos (bajas) que recogen los créditos transferidos***



<b>Capítulo</b>	<b>Denominación</b>	<b>Crédito inicial</b>	<b>Reducción</b>	<b>Crédito final</b>
1	<b>Gastos de Personal</b>	<b>1.424.961,38</b>	<b>9.630,00</b>	<b>1.415.331,38</b>
2	<b>Compra de bienes corrientes y servicios.</b>	<b>2.469.395,93</b>		<b>2.469.395,93</b>
3	<b>Gastos financieros</b>	<b>41.192,73</b>		<b>41.192,73</b>
4	<b>Transferencias corrientes.</b>	<b>555.048,19</b>		<b>555.048,19</b>
6	<b>Inversiones reales.</b>	<b>1.304.151,21</b>		<b>1.304.151,21</b>
7	<b>Transferencias de capital</b>	<b>155.304,29</b>		<b>155.304,29</b>
8	<b>Activos financieros</b>			
9	<b>Pasivos financieros</b>	<b>241.613,19</b>		<b>241.613,19</b>
<b>TOTAL:</b>		<b>6.191.666,92</b>	<b>9.630,00</b>	<b>6.182.036,92</b>

*Gastos (altas) que recogen los créditos adicionales*

<b>Capítulo</b>	<b>Denominación</b>	<b>Crédito inicial</b>	<b>Incrementos</b>	<b>Crédito final</b>
1	<b>Gastos de Personal</b>	<b>1.415.331,38</b>		<b>1.415.331,38</b>
2	<b>Compra de bienes corrientes y servicios.</b>	<b>2.469.395,93</b>	<b>9.630,00</b>	<b>2.479.025,93</b>
3	<b>Gastos financieros</b>	<b>41.192,73</b>		<b>41.192,73</b>
4	<b>Transferencias corrientes.</b>	<b>555.048,19</b>		<b>555.048,19</b>
6	<b>Inversiones reales.</b>	<b>1.304.151,21</b>		<b>1.304.151,21</b>
7	<b>Transferencias de capital</b>	<b>155.304,29</b>		<b>155.304,29</b>
8	<b>Activos financieros</b>			
9	<b>Pasivos financieros</b>	<b>241.613,19</b>		<b>241.613,19</b>
<b>TOTAL:</b>		<b>6.182.036,92</b>	<b>9.630,00</b>	<b>6.191.666,92</b>

**Segundo.- Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites, procede que por los Servicios de la Intervención de Fondos se refleje en la contabilidad la modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos, ello sin perjuicio de dar cuenta de este acto al Ayuntamiento Pleno en la primera reunión que celebre.**

- **RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA**

Nº: B11/00055

FECHA: 04/02/2011



**ASUNTO:** APROBACIÓN DEL ESPEDIENTE DE HABILITACIÓN DE CRÉDITO

**EXPEDIENTE:** Modificación de crédito nº 2 realizado al presupuesto de 2011

**INTERESADO:**

*La secretaria-interventora ha realizado el expediente de aprobación de modificación de crédito nº 2 (modalidad habilitación de crédito) realizado al presupuesto de 2011.*

**Vistos los documentos que componen el expediente y declarándolos conformes,**

### **RESUELVO**

1.-. *Aprobar el expediente de habilitación de crédito (modificación de créditos nº 2 realizada al presupuesto de 2011) a consecuencia de la recaudación finalista. En total, 1.581,78 €.*

## **2.2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA**

2.2.1 Respuesta del equipo de gobierno del Ayuntamiento de Eskoriatza al escrito remitido por el concejal de IU sobre la campaña de captación de fondos emprendida por la residencia:

El Alcalde lee el siguiente texto:

- . No entraremos a valorar los calificativos vertidos en el texto. No merece la pena. Por sí solos descalifican a quien los ha escrito.
- . Las acusaciones a los componentes del patronato son falsas. Es mentira que el patronato tenga responsabilidades en la actuación del exdirector de la residencia. Hay una sentencia judicial firme que lo deja bien claro. El concejal de IU debería conocerla, pero sospechamos que no la ha leído.
- . Este equipo de gobierno apuesta claramente por mantener la residencia en Eskoriatza. Atendiendo a la solicitud del patronato, ayudaremos a pagar la deuda existente. Además, entendemos que es legítimo y apropiado que también se implique en esta labor a otras entidades y a la ciudadanía en general. Por eso apoyamos la campaña de captación de fondos recientemente iniciada (y hacemos un llamamiento a los partidos políticos aquí representados y también a los miembros de la corporación, para que como eskoriatzarras colaboren con la misma).
- . No hay que confundir a la ciudadanía. El dinero que se ha reservado para rehabilitar el antiguo cine y hacer una sala multiusos, por ley, no puede invertirse en pagar las deudas de la residencia. Son fondos destinados a inversiones públicas y la residencia (al menos de momento) no es pública. Pagar esas deudas con dichos fondos sería ilegal y todo concejal debería saberlo.

2.2.2 Servicio de recogida “puerta a puerta” y firma del Pacto de Usurbil

Hace dos semanas la Mancomunidad adoptó un acuerdo, que el Alcalde lo califica de histórico, y se pronunció a favor del servicio de recogida “puerta a puerta”. También se ha adherido al Pacto de Usurbil, adhesión que también el Alcalde lo califica como histórico a favor del desarrollo sostenible.



El próximo 7 de marzo está previsto que empiece a prestarse el servicio de “puerta a puerta” en el primer municipio de la mancomunidad, en Antzuola, e invita a todos los presentes a los actos que se celebrarán con motivo de dicho evento.

### **3.- Ratificación sobre inclusión de asuntos en el orden del día.**

Por unanimidad se acuerda ratificar la inclusión dentro del orden del día de los siguientes asuntos que, por falta de quórum, no han sido dictaminados por la Comisión Informativa correspondiente:

- *Aprobación inicial de las bases para la concesión de subvenciones a las agrupaciones y asociaciones culturales sin ánimo de lucro del municipio de Eskoriatza para los programas y actividades que desarrollarán durante 2011*
- *Acuerdo sobre incoación de procedimiento de deslinde de parte del camino de uso público que desde la carretera GI3310 sirve de acceso a los caseríos Gorosarri.*
- *Formalización de Convenio de Colaboración con Leintz Eskola Kirola.*

### **4.- Modificación del artículo artículo 26 ( votos particulares y enmiendas) del Reglamento Orgánico Municipal.**

**Conocido por todos los presentes la modificación que se propone desde la Comisión Informativa de Hacienda y que afecta al artículo 26 del Reglamento Orgánico Municipal , el Pleno con el voto en contra del Sr. Merino y el voto a favor del resto de los corporativos presentes, que constituyen el quórum de la mayoría absoluta legal, ACUERDA:**  
**Primero: Aprobar en los siguientes términos la modificación del artículo 26 del Reglamento Orgánico Municipal.-**

*A.- Voto particular es la propuesta de modificación del texto original de un dictamen formulada por un miembro de la Comisión Informativa que ha asistido a la reunión. Debe presentarse por escrito dentro de las 24 horas siguientes al de la adopción del dictamen y acompañará al dictamen desde el día siguiente a emitirse el mismo por la Comisión.*

*B.- Enmienda es la propuesta de modificación del texto original de un dictamen o proposición. Cuando se trate de una enmienda a un dictamen habrá de ser formulada por un corporativo no miembro de la comisión de la que emanó el dictamen o, siendo miembro de la misma, que no estuvo presente en la reunión. Deberán presentarse por escrito y con una antelación mínima de 48 horas a la sesión plenaria.*

*Desde la Alcaldía se darán las órdenes oportunas para trasladar las enmiendas a los portavoces de los grupos políticos*

*Las enmiendas y los votos particulares pueden referirse a la totalidad o a algún punto en concreto.*

*Son a la totalidad cuando versan sobre la oportunidad, principios o espíritu del dictamen o proposición y propongan su devolución o propongan un texto alternativo completo.*

*Las enmiendas y votos particulares a un punto concreto pueden ser: De supresión. De modificación. De adición.*



*En el pleno se debatirá en primer lugar los votos particulares y las enmiendas a la totalidad, sometiendo en dicho orden a votación y si no fueran aprobadas el Ayuntamiento pleno debatirá los votos particulares y las enmiendas parciales uno a uno, pasándose a votar a continuación; finalmente se pasará a votación el texto aceptado con los votos particulares y/o enmiendas aprobados, en su caso.*

Segundo: **Someter a información pública por el plazo de 30 días el referido acuerdo a efectos de reclamaciones y observaciones que pudieran deducirse.**

**Tercero:** El acuerdo de modificación devengará definitivo sin necesidad de nuevo acuerdo si transcurrido el plazo reglamentario de la información pública no se hubiera producido reclamación alguna.

#### **5.- Aprobación inicial de las bases para la concesión de subvenciones a las agrupaciones y asociaciones culturales sin ánimo de lucro del municipio de Eskoriatza para los programas y actividades que desarrollarán durante 2011**

Todos los corporativos presentes disponen de una copia del dictamen de la Comisión Informativa de Cultura.

De conformidad con la propuesta elevada y el voto favorable de todos los corporativos asistentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Aprobar las Bases para la concesión de subvenciones para agrupaciones y asociaciones culturales sin ánimo de lucro del municipio de Eskoriatza para los programas y actividades que desarrollarán durante el 2011.

Segundo: **Someter dichas BASES a información pública por un periodo de 30 días hábiles , contados a partir de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para que pueda ser examinadas y presentar las reclamaciones y sugerencias que se estimen pertinentes.**

**Tercero:** De no producirse sugerencias o reclamaciones dichas BASES se entenderán definitivamente aprobadas sin necesidad de nuevo acuerdo.

**Cuarto:** Facultar al Sr. Alcalde para que, aprobadas dichas BASES convoque las ayudas por las mismas reguladas y autorice el gasto correspondiente.

#### **6.- Acuerdo sobre incoación de procedimiento de deslinde de parte del camino de uso público que desde la carretera GI3310 sirve de acceso a los caseríos Gorosarri.**

Tras sendos expedientes de deslinde y amojonamiento del camino que desde la carretera GI 3310 sirve de acceso al caserío Gorosarri Behekoa , se ha constatado la necesidad de proceder nuevamente al deslinde y amojonamiento del tramo siguiente:

- Desde el tramo colindante a la finca propiedad del caserío Labetxe (Zarimutz) hasta donde empieza el tramo hormigonado.

Dicho expediente servirá no sólo para definir con total precisión los límites del camino, levantar una descripción exacta del mismo, con expresión de sus linderos, colindancias y extensión perimetral y superficial; sino que también para poder determinar si ha existido ó no una usurpación del mismo.





Considerando lo establecido en el artículo 82 b) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local sobre la procedencia de la potestad de deslinde de los bienes municipales.

Considerando lo establecido en los artículos 56 y siguientes del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, referentes a la potestad de deslinde por las Entidades Locales, el Pleno, por unanimidad ACUERDA:

**Primero:** INCOAR expediente para practicar el deslinde del camino que sirve de acceso desde la GI 3310 a los caseríos Gorosarri,- tramo pegante a terrenos del caserío Labetxe y a los del caserío Gorosarri Behekoa hasta el tramo hormigonado.

**Segundo:** Para realizar el acto público de apeo citar a los interesados en la fecha y hora indicados a continuación:

<b>Nombre y apellidos del propietario colindante</b>	<b>DIA</b>	<b>HORA</b>	<b>LUGAR</b>
Rosalía Gamboa Murgoitio- Errota Caserío	9-05-2011	10:30	Caserío Gorosarri Behekoa
Javier Aguirre Bereciartua - Caserío Gorosarri Behekoa.	9-05-2011	10:30	Caserío Gorosarri Behekoa
José Luis Eraña-Labetxe Baserria	9-05-2011	10:30	Caserío Gorosarri Behekoa
Juan Jose Altuna Bengoa	9-05-2011	10:30	Caserío Gorosarri Behekoa
Cesar Fernández Lage	9-05-2011	10:30	Caserío Gorosarri Behekoa
Antonia Gorostiza Bengoa-baserria Palacio	9-05-2011	10:30	Caserío Gorosarri Behekoa

**Tercero:** Designar a las siguientes personas como miembros de la Comisión Municipal que participará en la instrucción del expediente y realización del acto de apeo:

- *Alcalde: Pedro Lasagabaster*
- *Concejales: Unai Salaberria Múgica  
Carmelo Leceta Abásolo*
- *Secretario Municipal: Edurne Iturbe Lascurain*
- *Técnico topógrafo: Juan Mari Arana Elezpuru*

**Cuarto:** Informar a los interesados que pueden presentar hasta veinte días antes de la fecha fijada para el acto del apeo cuantos documentos estimasen conducentes a la prueba y defensa de sus derechos.

**7.- Incoación de expediente para el arrendamiento de la vivienda municipal sita en Intxaurtxueta 26- 1º izquierda.**





**CONSIDERANDO** el expediente incoado para el arrendamiento de la vivienda sita en el 1º izquierda del edificio nº 26 de Intxaurtxueta , el Pleno, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Bienestar Social , y con el voto favorable de todos los corporativos asistentes, que constituyen el quórum de la mayoría absoluta legal, **ACUERDA:**

**Primero:** Arrendar mediante sorteo la vivienda izquierda del primer piso del edificio número 26 de Intxaurtxueta Auzoa.

**Segundo:** Aprobar el Pliego de condiciones jurídico económico-administrativas que ha de regir arrendamiento , disponiendo que se publique por plazo de ocho días en el Tablón de Anuncios y Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**Tercero:** Simultáneamente, dentro del plazo de la exposición del Pliego de Cláusulas Administrativas se anunciará la licitación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, si bien la licitación se aplazará cuando resulte necesario en el supuesto de que se formulen reclamaciones contra el Pliego de Condiciones.

#### **8.- Baja de derechos reconocidos en ejercicios anteriores.**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos asistentes, el Pleno **ACUERDA:**

**Primero:** Dar de baja a la siguiente relación de derechos reconocidos en ejercicios anteriores.

<b>(*)CONCEPTO/PLAZO/Nº</b>	<b>CANTIDAD (€)</b>	<b>CONTRIBUYENTE</b>	<b>MOTIVO</b>
001/200781-548/170	39,15	SAN VICENTE BENGGOA ANA M.	Desde el inicio ha pagado el impuesto del coche en Bergara.
001/200881-535/145	39,15	SAN VICENTE BENGGOA ANA M.	Desde el inicio ha pagado el impuesto del coche en Bergara.
001/200981-544/128	39,66	SAN VICENTE BENGGOA ANA M.	Desde el inicio ha pagado el impuesto del coche en Bergara.
001/201001/132	130,80	ANDUAGA OYANGUREN M.JAIONE	También le correspondía la exención en 2010 (minusvalía)

**Segundo:** Devolver aquellos recibos de la relación anterior que han sido cobrados erróneamente.

#### **9.- Aprobación inicial de la desinfectación de las viviendas sitas en San Pedro 5º izquierda y 5º derecha.**

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada en fecha 24 de setiembre de 2008 , adoptó el acuerdo de solicitar al Departamento de Educación de Gobierno Vasco, en base a las razones expuestas en los antecedentes de dicho acuerdo, concediese autorización para proceder a la desinfectación las siguiente viviendas sitas en el edificio nº 9 de San Pedro: Vivienda 5º Izquierda y 5º Derecha.

**Cursada dicha solicitud, por Orden de fecha 12 de marzo de 2009, dictada por el Excmo. Sr. Consejero de Educación, Universidades e Investigación, se concedió al Ayuntamiento de**



**Eskoriatza la autorización previa a la desinfección de la viviendas, de conformidad con lo previsto en el art. 6 de Decreto 77/2008.**

De conformidad con lo preceptuado en el art. 81 de la L.B.R.L. y art. 8 d l R.B., el Pleno, por unanimidad y con el quorum de la mayoría absoluta legal, ACUERDA:

1º.- ALTERAR la CALIFICACION JURIDICA de la viviendas sitas en el 5º Izquierda y 5ª Derecha de San Pedro nº 9, desinfectándolas del dominio público y quedando calificadas como bien patrimonial.

2º.- Someter el expediente a información pública por plazo de UN MES en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y Boletín Oficial de la Provincia, para que puedan formularse las alegaciones que se estimen convenientes.

**10º.- Formalización de Convenio de Colaboración con Leintz Eskola Kirola.**

Todos los corporativos han dispuesto de una copia del dictamen y de la propuesta del convenio.

La Secretaria advierte que es preciso constatar que LEintz Eskola Kirola está inscrita en el Registro de Asociaciones, así como que está al corriente en sus obligaciones tributarias y con la seguridad social , ello sin perjuicio también de algunas modificaciones que habrá que introducir al texto.

El Sr. Agiriano aclara que la subvención que se propone conceder es de 6.759 euros.

Tras la votación, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Cultura y sin perjuicio de que previamente quede constancia de que Leintz Eskola Kirola está inscrita en el Registro de Asociaciones, así como que está al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, el Pleno, por unanimidad, acuerda:

**Primero:** Acreditadas las circunstancias señaladas en los antecedentes, formalizar con LEINTZ ESKOLA KIROLA un convenio a través del cual queden recogidos los compromisos que cada una de las partes adquiere en relación al programa de deporte escolar.

**Segundo:** En cumplimiento de las obligaciones asumidas por este Ayuntamiento, conceder a LEINTZ ESKOLA KIROLA una subvención de 6.759 euros con cargo a la partida 0406.481.452.60.01. Abonar con carácter inmediato el 60% de la cantidad concedida una vez se haya formalizado el convenio.

**Tercero:** Facultar al Sr. Alcalde para que firme dicho convenio en nombre y representación del Ayuntamiento.

**11.- Ruegos y preguntas.**

11.1.El Sr. Pierrugues solicita conste en acta la siguiente intervención, intervención que hace para justificar el voto en contra que ha emitido antes de la sesión sobre la procedencia de publicar o no en la página web del Ayuntamiento la nota de prensa de grupo Ezker Batua.

*INTERVENCION DEL CONCEJAL SOCIALISTA, IÑAKI PIERRUGUES, CON MOTIVO DE LA NOTA DE PERNSA DEL CONCEJAL DE EB*



*No quiero entrar en las descalificaciones personales como lo ha hecho Juan Luis Merino. Yo no concibo la política de esa manera. Para mí existe la crítica política entre las distintas opciones u opiniones políticas sobre la cosa pública, y rechazo las descalificaciones personales entre quienes hacemos política, incluso es más, me incomodan.*

*Este comportamiento de Juan Luis Merino no es nuevo, se repite. Ya en la campaña electoral de las municipales de 2007 dedicó prácticamente todo su vídeo publicitario a meterse contra mi persona y contra mi partido, y dejando muy poco para su oferta electoral. Y entonces había otro equipo de gobierno. Un equipo de gobierno donde él y su partido participaron activamente, abducidos por al derecha nacionalista. O sea que, entonces yo no era un fiel lacayo del actual equipo de gobierno. Sería otra cosa.*

*Pero esto no es lo que más me preocupa. Me preocupan, sobre todo, las falsedades y mentiras que crean incertidumbres, confusión y alarma social entre la población de nuestro municipio. Porque no se puede engañar a la gente diciendo que el Ayuntamiento no ha querido dedicar sus inversiones a la Residencia de Ancianos y sí lo ha hecho con Zaldibar Antzokia. Conviene precisar que, el Ayuntamiento no puede dedicar ni los Fondos del Plan estatal de inversión local, puesto en marcha por el gobierno de Zapatero, ni las plusvalías urbanísticas de la zona de Santa Marina a una Fundación privada como es la Residencia de Na. Sra. de las Mercedes, porque las leyes no lo permiten. Y esto es así y Juan Luis Merino lo sabe. ¿O es que acaso pretende que prevariquemos como se hizo durante la anterior legislatura?*

*Por cierto, que si no hubiera sido gracias a estos Fondos estatales y a estas plusvalías urbanísticas no se habría podido realizar ninguna inversión en Eskoriatza durante la presente legislatura. Porque, gracias a las ilegalidades, irregularidades y endeudamientos del anterior gobierno tripartito, del cual Juan Luis Merino participó, las arcas municipales no daban más que para el gasto corriente del funcionamiento del Ayuntamiento, y justamente.*

*En otro orden de cosas, y aunque no le parezca serio lo de solicitar ayudas y donaciones a las Instituciones, Entidades y pueblo de Eskoriatza-una costumbre que por cierto ha sido una práctica habitual en este tipo de Residencias privadas-, me parece menos serio que Juan Luis Merino no haya recordado a sus amigos de Hamaikabi, que dirigen el Departamento de Servicios Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el compromiso adquirido en su día de aportar un cantidad de dinero-unos 300.000 euros-para hacer frente a la rehabilitación del edificio y a la homologación de la Residencia de Ancianos a la normativa vigente en materia de Residencias.*

*Pero hay más, y acabo. Yo no entiendo la política como otros que, si no están ellos gobernando, creen que hay que hacer lo posible para que las propuestas que benefician a la gente no prosperen. Y a pesar de las limitaciones que he tenido para desarrollar una política municipal más cercana a la gente, he podido aportar propuestas que redundan y redundarán en beneficio del pueblo de Eskoriatza. Propuestas que han sido asumidas por el actual equipo de gobierno. Y propuestas del equipo de gobierno que he aceptado porque iban encaminadas a mejorar el bienestar y calidad de vida de las gentes de Eskoriatza; propuestas progresistas y de izquierdas.*

*Por así solicitarlo, se hace constar la intervención de la Sra. Otamendi ante lo manifestado por el Sr. Pierrugues: Has empezado diciendo que no vas a faltar, a entrar en el juego de Merino y creo que has entrado en el mismo juego de faltar y has empleado un tono que a mí personalmente no me gusta nada. Otra cosa es el contenido, pero la forma es la misma. Ante todo respeto. (Aclara que esa es su opinión respecto a ambos escritos, el de E.B y el de Iñaki Pierrugues)*



La Sra. Begoña solicita que también conste en acta que ella se suma a lo dicho por la Sra. Otamendi en relación a ambos escritos.

El Sr. Leceta solicita conste en acta que él se suma a lo dicho por la Sra. Otamendi en relación al escrito del Sr. Pierrgues.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 19:30 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**